



### **FUNTSEZKO BALIABIDEAK:**

Baliabide fisikoei dagokionez, produktuak sortzeko behar diren materialak instalazioak, makinaria eta garraiobideak beharko dira besteak beste. Baliabide ekonomikoei dagokienez langileen soldata, argindarra, seguruak, eta laburbilduz, gainontzeko baliabide guztiak ordaintzeko behar adina diru erabiliko dugu. Baliabide intelektualetan, berriz, ingeniari eta fisikako lizentziatuen laguntza izango dugu, baita ordenagailuen laguntza ere. Giza baliabideak gure langile eta beste enpresen langileak izango dira, hala nola, garraiolariak.

Baliabide gehienak beste enpresetatik eskuratuko ditugu, hala nola, egurra eta metalak eta makinaria. Material hauek eskaria egin eta jarraian lortu beharko ditugu, ahal den azkarrena muntatu ahal izateko.

Banaketa-lanak eskatzen dituzten baliabideak hauek izango lirateke: Garraiobide egoki eta eroso bat, hau da, kamioi edo furgoneta on bat.

Negozio-ereduko baliabide garrantzitsuena eta garestiena giza baliabideak izango ziren, soldatak oso garestiak direlako baina langileak ezinbestekoak direlako lanean jarduteko.

